

XIV. IDAZLAN KOADERNOAK 2015

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 4.- EKINTZA OSAGARRIAK**
- 5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 6.- KRONOGRAMA**
- 7.- GASTUEN ZERRENTA**
- 8.- ERANSKINAK:**

- I. ERANSKINA: Egindako batzarretako aktak.**
- II. ERANSKINA: Portada lehiaketarako arauak.**

1.-SARRERA

Lehenengo Idazlan koadernoa (L.I.K.), Gernika-Lumoko ikastola eta ikastetxe ezberdinetan ikasturte bakoitzean taxututako idazlanak plazaratzeko asmoarekin jaio zen 2002an; ikastetxeetan ikasturtean zehar aukeratzen diren idazlanik onenak batu eta, modu duin eta txukunean bi liburutan argitaratzen dira, bata LH-koena eta, bestea, DBH-koena.

Tresna estimagarri bilakatu dira liburuok eskoletan irakurmena eta idazmena lantzeko eta umeen familiarterako asko erakarri dituzte euskaraz lehenengo aldiz irakurtzera. Argitalpenak plazaratzeko bi irakurketa ekitaldi antolatu izaten dira (LH-koena eta DBH-koena), euskarri informatikoez apainduta (irudi, musika, marrazki,...) eta idazle gaztetxo guztiei euren ahalegina eskertzeko.

Aurtengoan, 2015ean, XIV. Idazlan Koadernoari emango diogu beta eta gogoz arituko gara ikastetxeekin elkarlanean, aurreko urteetan bezala osagai bereziak ere antolatuz:

- Irakurketa ekitaldiak (LHkoena eta DBHko/Batxilergokoena) Lizeo antzokian: egindako lanak jendaurreratzeko, gelakideentzat idazleak eredugarri izan daitezen eta eskolaz kanpoko egoera eta tokietan euskararen erabilpenerako bideak jorratu asmoz.
- Portada lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.

Azpimarratu beharra dago Udal Eskola Kontseiluan hausnarketa egin ondoren, aurreko ikasturtean hartutako bideari eutsiko zaiola: argitalpenak beste modu batera egokitu eta prezio erdian kaleratzea, aurrekontu murrizpenak bitarteko (LHkoena liburutan eta DBH/Batxilergokoena modu digitalean).

2.-HELBURUAK

Indarrean daukagun 2014-2017 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana oinarri, 2015eko Kudeaketa Plana moldatu da eta bertan aintzat hartu hurrengo helburuak:

- Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.

2. Irakaskuntza

2.1. Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia eta baliabide berriak garatzea

2.1.8. Ikastetxe bakoitzean hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera-plangintza egitea, hau da, hizkuntza-proiektua egitea

- 2.1.8.2.- Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak garatzeko diru laguntzak eskaini eta planak koordinatu

- 2.1.8.3.- Udal Eskola Kontseilutik koordinatzen ez diren eta euskaraz garatzekoak diren eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako diru laguntza deialdia

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harremanhizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)

- 2.4.4.4.- Idazmena sendotzeko, Idazlan Koadernoaren egitasmoa garatu eta inplementatu (LH/DBH/BA)

3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: bilerak koordinatzea, argitalpenak egokitzea, eta gainerakoak antolatzea (irakurketa ekitaldia, erakusketa eta hitzaldiak).

- Udal Eskola Kontseilua: Batzorde honek egiten dituen bilkuretan, bestea beste, zehazten dira urtero ikasturtean burutuko diren eskolaz-kanpoko ekintzen egutegia. Ekintza horien artean Idazlan koadernoarena (noiz, osagarriak, baldintzak, e.a.).
- Ikastetxeak/Institutuak: 7 zentro.

Baliabideak:

- Eskoletako/Institutuetako irakasleak (7): irakasle arduradun bat izango da zentro bakoitzean Idazlan Koadernoaren egitasmoa garatzeko.
- Azpiegitura eta diruzkoak: antolaketarako behar izango den azpiegitura eta diru-baliabideena Euskara Zerbitzuak jarriko du.

4.- EKINTZA NAGUSIA ETA OSAGARRIAK

- **Argitalpenak:**
 - Lehen Hezkuntzako XIV. IDAZLAN KOADERNOA – LHko ikasleak: 30 idazlan (300 ale inprimatuko dira: sari-banaketarako 60, zentroetarako 200 eta gainerakoak, 40, hurrengo urteetako sari-banaketetarako ETA Euskarazoka programarako).
 - DBH/Batxilergo/HHIko XIV. IDAZLAN KOADERNOA.- DBH/Batxilergoko ikasleak: 33 idazlan (200 CD kaleratuko dira, arestiko banaketaren parekoa eginik).
- **Irakurketa ekitaldiak**: sari-banaketarako antolatuko dira eta bi ekitaldi osatuko dira (ordu beteko saioak):
 - LHkoena, martxoaren 17an, goizez, 11:00etan.
 - DBHkoena, martxoaren 18an, goizez, 11:00etan.

- **Portada lehiaketa / Erakusketa:** lanak aurkezteko epemuga 2015eko urtarrilaren 23a. Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa berezi bat egingo da Lizeo antzokiaren sarrera gelan, irakurketa ekitaldiak izan baino aste bete lehenago eta hurrengo astea.

5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

Aldez aurretik argitu behar, egitasmo honen xede talde nagusia Gernika-Lumoko ikasleak ez ezik bertoko zentroetako ikasleak direla, eskualde osokoak biltzen direlako eurretan.

Beraz, hauexek izango dira zehatz egitasmoaren xede taldeak:

- **LHko ziklo guztietako ikasleak (1.100):**
 - Idazlanak aurkeztuko dituztenak: LHko ikasleen 500 bat idazlan.
 - Hautatu eta argitaratuko diren idazlanak: 30.
 - Argitalpenak landuko dituztenak: LHko ikasle guztiak (1.100).
- **DBH/Batxilergoko ikasleak (1.300 inguru):**
 - DBH/Batxilergoko 500 bat idazlan aurkeztuko dira.
 - Hautatu eta argitaratuko diren idazlanak: 33.
 - Argitalpenak landuko dituztenak: LHko ikasle guztiak (1.300).
- **Hautatutako idazleen senitartekoak (240 bat):** sendikoei gonbitea egiten zaie irakurketa ekitaldietarako. Gainerakoa senitarteei ere iristen zaie honi buruzko jakinmina: **500 bat** pertsona heldu gehiago.
- **Oiz-Mendi telebistak** (toki telebista) grabatu eta hiru aldiz emititzen ditu irakurketa ekitaldiak. Ikusle kopuru potentziala edo

audientzia datuak: **20.000** (Busturialdean eta Lea-Atibai eskualdeetan).

Adierazleak:

Egitasmo honi lotutako adierazleak partaideen kopuruekin lotuta dauden arren, urtero erabiltzen dugun beste adierazle bat haxe dugu: Barriola eta Urruzuno lehiaketetan udalerriko irakaskuntza zentroetako ikasleek lortutako sariak. Honek ematen digu gure gaztetxoek idazmenaren neurri.

6.-GARAPENA - KRONOGRAMA

	2014			2015		
Eginkizunak	Urria	Azaroa	Abend	Urtarri	Otsaila	Martxoa
Bilerak						
Ikastetxeetan idazlanak						
Portada lehiaketa						
Portada lehiaketa ebatzi						
Idazlanak batu						
Argitalpenak egokitu						
Portadak (erakusketa)						
Irakurketa ekitaldiak						17, 18

7.- AURREKONTUA

Gastuak

Irakurketa ekitaldirako ikusentzunezkoak egokitzea (irudiak, musika, marrazkiak,...)	1.700
Argitalpenak (LHkoen liburua + DBH/Batxilergoko CDa)	6.300
Irakurketa ekitaldietako gidoia prestatu eta aurkezpenak egin (bi antzezle)	700
Sariak: liburuak erosteko bonoak (70 x 35 €)	2.300
Diru laguntzak zentzoei	4.000
Gastuak guztira	15.000

Gernika-Lumon, 2015eko urtarrilean.

Naiara Urberuaga Erkoreka
Kult. Hezk. eta Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria

I. ERANSKINA

Egindako batzarretako aktak

UDAL ESKOLA KONTSEILUAK 2014KO URRIAREN 8an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreko aztergaiak ekintzaka eta ordu desberdinetan aztertu dira.

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (HNT1)

(....)

1).- 10:30ean, IDAZLAN KOADERNOAK 2015.

Batzarreratuak:

Berritzegunea
Seber Altube ikastola
Allende Salazar ikastetxea
Barrutia Ikastetxea
Mertzedo ikastetxea
Gernika Institutua
Barrutialde Institutua
HHI-EPA Zentroa

Hartutako erabakiak:

1).- Liburuen portadetarako lehiaketa bat antolatuko da, aurreko urteetakoari eutsiz (**ikus 1. eranskina**). Lanak aurkezteko epemuga: 2015eko otsailaren 9a eta zentro bakoitzak gehien 10 lan aurkeztu ahal izango ditu (10 LHkoenak eta beste 10 DBH/Batxilergoakoenak).

2).- Portada lehiaketako epaimahaia Udal Eskola Kontseilua izan beharrean, Udaleko hezkuntza sailak eratuko du berezia, aurreko ikasturtean bezala: Kultura Etxeko zuzendaria, arte eskolako ordezkari bat, berritzeguneko beste bat eta Hezkuntza arloko zinegotzia. Portada

erakusketa Lizeoan egin ostean, Kirol Patronatora eta zentroetara eramatea.

3).- Idazlanak aurkezteko iazko baldintzak eurak mantentzea:

ZIKLOA	LAN KOPURUA	ORRI KOPURUA-IDAQTARUAK
L.H. 1. Zikloa	2 idazlan zentro bakoitzeko	Orrialde bateko lanak eskuz idatzita , marrazkia barru
L.H. 2. Zikloa	“ “ “ “	2 orrialdeko lanak eskuz idatzita , marrazkia barru
L.H. 3. Zikloa	“ “ “ “	3 orrialdeko lanak eskuz idatzita , marrazkia barru
DBH 1. Zikloa	“ “ “ “	3 orrialdeko lanak , marrazkia barru, euskarri digitalean (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)
DBH 2. Zikloa	“ “ “ “	4 orrialdeko lanak, marrazkia barru, euskarri digitalean (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)
HHI-EPA	2 idazlan	4 orrialdeko lanak, marrazkia barru, euskarri digitalean (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)
BATXILERGOA	6 Gernika Institutukoak 4 Barrutialde Institutukoak	3 orrialde <u>gutxienez</u> , marrazki barik, euskarri digitalean (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)

4).- Idazlanak aurkezteko epe-muga: urtarrilak 23.

5).- Irakurketa ekitaldiak: martxoak 17 (LHkoa) eta martxoak 18 (DBH/Batxilegokoa). Saritzat eskola-materiala erosteko bonoak emango dira, 30 €-koak LHkoentzat eta 40 €koak DBH-Batxilergokoentzat). Bestalde, irakurketarako irakurle bakoitzak eramango du azpimarratuta irakurri beharrekoa dagokion tartean.

6).- Gai honekin lotuta, Euskararen egunarekin loturiko **HAMAIIKA ORDUKO IRAKURRALDI**Aren berri ematen da:

- Eguna: Abenduak 3, eguaztena.
- Irakurgaia: erabaki barik dago.
- Ordutegia: goizeko 8:00etatik iluntzeko 8:00etara. Irakaskuntza zentroak goizez arituko dira eta lehenengoa Gernika institutua izango da. Gainerakoen partaidetza aurrerago zehaztuko da.

(...)

II. ERANSKINA

XIV. IDAZLAN KOADERNOAK (2015)

PORTADA LEHIAKETARAKO BALDINTZA ARAUAK

1.- Partaideak.- Gernika-Lumoko Udal Eskola Kontseiluan parte hartzen duten zentroetako ikasleek hartu ahal izango dute parte, LHko portadarako LHko ikasleek eta DBH/Batxilergoko portadarako maila bereko ikasleek.

2.- Lanak aurkezteko epemuga 2015eko otsailaren 9a izango da.

3.- Lan kopurua.- LHko portadarako zentro bakoitzak 10 lan aurkeztu ahal izango ditu, aldez aurretik aukeraketa zentroak berak eginda. DBH/Batxilergoako ere beste horrenbeste, 10 lan zentro bakoitzak.

4.- Lanen ezaugarriak:

- **A4 neurrikoak** izango dira.
- **LHko lanak eskuz** egindakoak izango dira, baina kontuan hartu beharko da eskaneatzeko egokiak izan beharko direla, erreliebe bakoak. Epaimahaiak ere kontuan hartuko du baldintza hori hautaketarako.
- **DBH/Batxilergoko lanak euskarri digitalean** aurkeztu beharko dira.
- Lan guztietan honako **testua** agertu beharko da, egilearen kabuz islatuta:
 - o LHko portadarako:
XIV.IK
LEHEN HEZKUNTZA-2015
XIV. IDAZLAN KOADERNOA
 - o DBH/Batxilergoko portadarako:
XIV.IK
DBH/Batxilergoa – 2015

XIV. IDAZLAN KOADERNOA

5.- Aurkeztutako lan bakoitzak **“goitizen bat”** izango du eta goitizen hori idatzita izango duen kartazal itxi batean egilearen datuak jarriko dira

6.- **Epaimahai berezi batek ebatziko du lehiaketa**, hurrengo hauek osatuko dutena: Hezkuntza zinegotzia, Kultur Etxeko Zuzendaria, Berritzeguneko ordezkari bat, Arte Eskolako ordezkari bat).

7.- Azken fasera aurkeztutako lan guztiekin **erakusketa bat egingo** da Lizeo antzokiaren sarrera lekuan, irakurketa ekitaldien egunetan eta hurrengoetan ikusgai egongo dena.

8.- **Sariak:** Idazlan Koadernoaren argitalpenetako portadetan egileen izenak jarriko dira eta irakurketa ekitaldietan, martxoaren 17an eta 18an, aipamena egiteaz gain, eskola materiala erosteko bonoak emango zaizkie (30€ LHkoa eta 40€ DBH/Batxilergokoa).